

Donostian, 2016ko urtarrilaren 22an

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA HITZARMENEI ETA ZUZENENKO DIRU-LAGUNTZARI BURUZKOA

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, kanpai jotzeak telebistaz emateko EITBekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena dela eta Pertsonentzako Zerbitzuetako batzordearen hilabete honetako bileran aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

lazko uztailean jakinarazi zen EITB izango zela Donostia 2016ko hedabide laguntzailea. Euskal Hedabide Talde Publikoa DSS2016EUko hedabide –telebista, irratia eta internet– ofizial bihurtu zen lankidetzaren akordio horren bidez. DSS2016EU Fundazioak estrategikotzat jo zuen Euskadiko ikus-entzunezkoen talde nagusiarekin bat egitea.

Sinatutako akordioak, besteak beste, Hiriburutzaren urtean zehar burutuko diren ekitaldiak osorik eta zehatz eskaintzeko ekintzak jasotzen ditu, baita urtean zehar egin beharreko publizitatea (ETB1 eta ETB2ko *Kultur Flash* saioan) eta DS2016EUren agendari eta edukiei buruzko aldizkako espazio bat zabaltzeko ekintzak ere, batez ere Euskadi Irratian eta Radio Euskadin.

Abenduaren 9ko Tokiko Gobernuaren Batzarrean lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen Udalaren eta EITBren artean Tabakalerako eta Hiriburutzako kultura proiektuen bidez hiria sustatzeko. Bi alde horiek urte amaierako Kanpai jotzeak Tabakalerako terrazatik eskaintzea proposatzen zuten.

Hitzarmen horretan onartu zen 30.250 euro ematea Kaixo 2016 programa burura eramateko. EITBk emandako datuen arabera (Iturria: Kantar Media), emanaldian zehar batez beste 155.000 lagun bildu zituen EITBk bere bi kateetan.

Kontua da EITB 2016ko laguntzailea izango zela iragarri zela, eta hiriburutza hedatzeko egin zezakeen aurreneko komunikazio ekintzan Udalak 30.000 euro jarri behar izan dituela.



Bestalde, orain dela hilabete batzuk, "World Padel Tour" padel txapelketarako udalak 20.000 euroko zuzeneko diru-laguntza eman zion ekitaldia sustatu zuen enpresari, eta horren arrazoia zen aurreikusten zela ekitaldiaren antolakuntzak galera hori ekarriko zuela enpresarentzat. Txapelketak iraun zuen astean 15.000 lagun etorri ziren guztira. Irabazi Donostiatik zuzeneko diru-laguntza hori salatu genuen ulertzen genuelako ez delako era berean jarduten arazoak dituzten profesionalekin, eta gainera, adierazi genuen, diru-laguntza hori emateko beste partida batzuetatik kendu behar dela, irabazi asmorik gabeko elkarreentzako partidetatik kasu honetan.

Hori dela eta, ikusirik erakunde batzuei zuzeneko diru laguntzak ematean eta hitzarmenak egitean Udal Gobernuak aurrera eramandako jarduerak, hauxe da guk dakargun:

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio zuzeneko diru laguntzak eman aurretik gainerako taldeekin eztabaidatzeko bide bat ezartzeko.
2. Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio eztabaida hori aurrera eraman dadin beharreko prozedurak bideratzeko.

Stua.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.